



Zuzenbide Komunitarioan zer berri (Konstituzio- tendentziak)

BENGOETXEA, Joxerramon

Cabinet Edouard
Cour de Justice des CE
L-2925 Luxembourg

BIBLID [1137-1951 (1996), 0; 91-98]

1. OMC (MTE) irizpena eta CEDH (EGEI) irizpena. Zer da aurreikusitako akordioa? Gaiaren arazoa: esku-duntza 2. Factortame eta Brasserie du Pecheur konstituzio-afera gisa 3. Zuzenbide komunitarioaren aplikazioa Estatu kideetan 4. Salgaiak VS pertsonak: bi norabide ezberdin 5. (Sexu) bereizkeria.

Lantxo honetan, Europar Komunitateen zuzenbidean ("Komunitateetako zuzenbidea" edo "zuzenbide komunitarioa" aurrerantzean) azken urteotan ematen ari diren tendentzia eta garapen berriak aztertu eta komentatu nahi ditut, Europar Komunitateen Justizia Auzitegiren epaietatik darion jurisprudentzia dela bide (aurrerantzean "Justizia Auzitegia" edo "Auzitegia").

Ondoko tendentziak aipatuko dira azkenaldi honetako garapen interesgarrienen adierazle gisa: konstituzio arazoak, zuzenbide komunitarioaren aplikazioa Estatu kideetan, salgaien joan-etorri askearen eta pertsonen joan-etorri askearen arteko gonbaraketa, eta (sexu-)diskriminazioa. Ondoren aipatzen dira garapen interesgarrienen lekuko diren afera nagusiak:

OMC edo WTO Irizpena, 1/94, 1994-11-15koa, Rec: I-5267, Giza Eskubideen Irizpena, 2/94, 1996-3-28koa, Brasserie du Pecheur eta Factortame, C-46/93 eta C-48/93, 1996-3-5koa, Peterbroek, C-312/93, 1995-12-14koa, Rec: I-4599, van Schijndel eta van Veen, C-430, 431/93, 1995-12-14koa, Rec: I-4705 Atianta, C-465/93, 1995-11-9koa, Rec: I-3761, Keck eta Mithouard, C-267/91, 1993-11-24koa, Rec: I-6097, Alpine Investments, C-384/93, 1995-5-10, Rec: I-1141, Bosman, C-415/93, 1995-12-15koa, Rec: I-4921, Kalanke, C-450/93, 1995-10-17koa, Rec: I-3051, P, C-13/94, 1996-4-30,

1. OMC (MTE) irizpena eta CEDH (EGEI) irizpena

Ituneko 228. artikulua Komunitateko nazioarteko itungintza arautzen du. Artikulu honen seigarren paragrafoak Auzitegiari aholkularitza kompetentzia ematen dio, Ministro Kontseiluak, Batzordeak edo Estatu kideren batek proiektaturiko akordioari buruzko irizpena eska diezaioketelarik.

